

OREXA ▶

Auzoen arteko apustua

Intxaurpek irabazi dio Elbarreneri ▶ 6



Ekitaldiz betetako egitaraua aurkeztu dute Zizurkilen: Maiatza Saltsan

DENETIK ▶ 'Artearen omenez' leloa aukeratu dute; kultura, kirola eta bestelakoak izango dira

BERRIKUNTZA ▶ Umorezko Bakarrizketa Lehiaketa da aurtengo berrikuntza nagusia ▶ 4



Antolatzaileak karteekin. I.GARCIA

JUAN CARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS



Aralarreko larreak zabaldu dituzte jadanik

LARRAITZ ▶ Ehunka lagun elkartu zen igandean festa giroko ekitaldian ▶ 5

TOLOSA ▶

Hegoalde hiru puntu ekarri ditu etxera

Diamante Riojari 3-6 irabazi zion ▶ 3

LEITZA ▶

Mendi Astea eratu du Mendibilek

Erakusketa, hitzaldi eta proiektioak izango dira ▶ 7

TOLOSA ▶

Antzerkia, musika, erakusketak eta hitzaldiak izango dira maiatzeko protagonistak

Gaurtik aurrera, gazteei zuzendutako II. Hitzaldi Zikloak izango dira ▶ 2

KULTURA ▶

Badatoz maiatzekoak ere

Askotariko ekitaldiak izango dira hilabete honetan: antzerkia, kontzertuak, erakusketak, hitzaldiak...

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udaleko Kultur Batzordeak askotariko ekitaldiak antolatu ditu maiatzerako. Hilerro bezala, antzerkiak, musika kontzertuak eta erakusketak dira ugariena oraingoan ere, baina hitzaldiak, jardunaldiak, azoka, dantza ikuskizuna... horiek denak ere ekarri nahi izan dituzte Tolosara, batean eta bestean, herritarrek ekimen desberdinez gozatzeko aukera izan dezaten. Hauek dira, bada, maiatzean herriko leku ezberdinetan izango diren ekimenak, banan-banan zehaztuta:

ANTZERKIA

'Zapaldu marra'. Pikor Teatroak *Zapaldu marra* antzezlan eskainiko du hilaren 20an Leidor zinema aretoan, 09:00etan eta 11:00etan. Ikasleei zuzendutakoak izango dira bi saioak. **'Misterioa gazteluan'.** Hilaren 21ean izango da haurrei zuzendutako antzezlan hori Leidor zinema aretoan 17:00etan.

AZOKA

Almoneda eta Altzari zaharra. Tolosako Udalak antolatuta, Almoneda eta Altzari zaharren erakusketak eta salmenta izango da hilaren 6tik 8ra bitartean Ferialekuan. Goizez eta arratsaldean izango da zabalik.

DANTZA

'Pas de Basque'. Argia dantza taldeak *Pas de Basque* euskal dantzen ikuskizuna eskainiko du etzi, 22:30ean hasita, Leidor zinema aretoan. Sarrerak salgai dira Kultur Etxean —Gazte Txartelarekin merkeago—, eta egunero bertan leihatilan ere izango dira.

ERAKUSKETAK

Pintura. Matxin Labaien eta Miren Gonzalez pintore tolosarren pintura erakusketak dago ikusgai Aranburu Jauregian, eta maiatzaren 28a bitarte izango da jarrita. Egunero ikus daiteke erakusketak hori, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era. **'Calcuta ondoan'.** *Calcuta ondoan* izeneko argazki erakusketak gaurtik ekainaren 11ra izango da ikusgai, Aranburu Jauregian, egunero, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, arratsaldero, 17:30ak eta 20:30ak bitartean.



Almoneda eta Altzari zaharren erakusketak eta salmenta izango da hilaren 6tik 8ra Ferialekuan. HITZA

II. Hitzaldi Zikloak, gaurtik aurrera

Tolosako Gazteria sailak eta Gaztegunek II. Hitzaldi Zikloak antolatu dituzte egunotarako. Hitzaldi horietako gaiak Gaztegunetik proposatutakoak dira, eta, besteak beste, enplegua, emantzipazioa eta beste herriak ezagutzeko alternatibak landuko dituztela iragarri dute antolatzaileek. Hitzaldietan parte hartu nahi duten gazteek Kultur Etxera joan besterik ez dute; solasaldiak 20:00etan hasiko dira.

Hitzaldi ziklo horietako lehen saioa gaur bertan izango da. Enpleguaren baitan, *Kontratu mota ezberdinei* buruz ariko da Iñaki Tapia aditua, eta lan merkatuan aurkitzen diren kontratazio mota ezberdinak izango ditu mintzagai.

Enpleguari buruz ariko dira bihar ere; *Gazteak eta lana* izango da biharko hitzaldiaren ardatz. Tolosaldea Garatzeko Lanbide-Langai Orientazio zerbitzuko teknikari Leire Otagig eta Teresa Ceberio es-

kainiko dute solasaldia. Jorratuko dituzten gaien artean, Langai eta INEMen funtzionamendua, nola prestatu kurrikuluma, lan munduratzearan ibilbide ezberdinak eta Internet bidezko lan poltsa izango dira, besteak beste.

Bigarren zikloaren baitan, emantzipazioari buruz ariko dira. Hilaren 10ean *Etxebizitza erosterakoan sortzen zaizkizun zalantzak* izango dute hizpide Kutxako Etxebizitza zerbitzuko kudeatzaile Nora Eganak eta Idoia Goñik, eta etxebizitzaren erosketaren prozesua, gastuak, finantziario motak, aseguruak eta ogasun zerbitzuaren aurrean egin daitezkeen dedukzioak aztertuko dituzte.

Hilaren 12an *Gazteak eta etxebizitza* izango da mintzagai Euskadiko Gazteria Kontseiluko Etxebizitza arloko teknikari Sergio Garciaeren esku-tik. *Etxebizitza, gazteon eskubidea* landuko du, zehazki.

Eta amaitzeko, beste herriak ezagutzeko alternatibak jorratuko dituzte adituek. Hilaren 17an, asteartearrekin, *Elkarlan proiektuez* mintzatuko da Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko departamentuaren aholkulari Iker Uson: lankidetzaren egoera orokorra EAEn, kooperante lanetan laguntzen duten erakundeak: unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza..., kooperantearen figura: bolondresak eta profesionalak eta kooperante moduan egotearen arrazoiak izango ditu hizpide.

Hilaren 19an Travel Bug-i buruzko hitzaldia izango da: *La guía esencial de interrail y el viajero independiente*. Liburu horren egile Ibon Martin eta Alvaro Muñoz ariko dira hizketan, eta askotariko gaiak jorratuko dituzte: adibidez, ekipajea, informazio turistiko, komunikazioa, diru trukea, asistentzia medikoa... ◀

GAZTE TOPALEKUA

Kultur Etxean. Gazte Topalekuan hainbat ekintza izango dituzte asteburuerako 13 eta 17 urte bitarteko gazteok Kultur Etxeko areto nagusian. Larunbatetan eta igandetan bitartean dira, 16:30etik 20:30era.

HITZALDIKIAK

'Tsunami'. Aitzol udal euskal-

tegiak antolatuta, tsunamien kalteei buruzko emanaldia gaur, Kultur Etxean, 19:30ean.

'Egipto'. Nazaret Zentroak antolatuta, eta Gipuzkoako Kutxaren laguntzarekin, *Egipto* izeneko hitzaldia eskainiko dute bihar. 19:30ean hasiko da solasaldia, Kultur Etxean.

'Internazionalistak'. Eskualdeko gazte asanbladek hitzaldia antolatu dute *Internazionalistak* izenburupean. Hilaren

9an eta 11n eskainiko dute, Antonio Maria Labaien kultur etxean, 18:00etan hasita.

II. Hitzaldi Zikloa. Tolosako Udaleko Gazteria sailak antolatuta, II. Hitzaldi Zikloari hasiera emango diote antolatzaileek gaur. Hilaren 19a bitarte izango dira solasaldi horiek Kultur Etxeko areto nagusian, zehaztutako egunetan, 20:00etatik aurrera. Enplegua, emantzipazioa, etxebizitza eta bidaiak

izango dira, besteak beste, bertan jorratuko dituzten gaiak.

'Elikatzeko eskubidearen aldeko kanpaina'. Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatuta, *Elikatzeko eskubidearen aldeko kanpaina* izeneko hitzaldia izango da hilaren 18an, asteazkenarekin, Kultur Etxean, 20:00etan hasita.

JARDUNALDIKIAK

'Natura asaldatua'. Hilaren 23tik 27ra izango dira Tolosako natur jardunaldiak udaletxeko batzar aretoan, 20:00etan.

MUSIKA

Edu Manazas. Fronton kafetegian eskainiko du Edu Manazasek blues kontzertua etzi 23:30etik aurrera.

11. Musikaria. Eduardo Moko-roa udal musika eskolak kontzertu eta ekitaldi ugari antolatu ditu hilaren 21etik 28ra 11. Musikariaren harira:

▶ Instrumentu autoktonoen eguna izango dute, goizez, kalean zehar, hilaren 21ean.

▶ Haizearen orrazia boskotearen emanaldia, Musika Eskolako areto nagusian, 19:00etan, hilaren 23an.

▶ Jeshmar musika elkartearen saioa, Musika Eskolako areto nagusian, 19:00etan, hilaren 24ean.

▶ Donostiako Akordeoi Orkestra. Musika Eskolako areto nagusian, hilaren 25ean, asteazkenarekin, 19:30ean hasita.

▶ Errenteriako Orkestra. Musika Eskolako areto nagusian, 19:00etan, hilaren 26ean.

▶ Zonaldeko perkusioa. Musika Eskolako areto nagusian 20:00etan. Hilaren 27an.

▶ Tolosako Musika Bandaren kontzertua, Plaza Berrian, hilaren 28an, 19:30ean.

Ainara Legardon. Bartzelonatik etorrita, kontzertua eskainiko du Ainara Legardonek hilaren 7an, 22:30ean hasita, Bonberenean.

Torazinas eta Foraletes. Reuseko (Katalunia) Torazinas taldeak eta Foraletesek emanaldia eskainiko dute hilaren 14ean, 22:30ean hasita, Bonberenean.

Zein? Hilaren 21ean eskainiko du kontzertua Zein? musika taldeak, 22:30ean hasita, Bonberenean.

Brigada criminal. Hilaren 27an izango da Brigada kriminal musika taldearen kontzertua, 22:30etik aurrera, Bonberenean.

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Udaberri dantzari taldearen 50. urtemuga

Kaixo, udaberrikide oro!

Dakizuen bezala bi urte barru Udaberri Euskal Dantzari Taldeak bere sorreraren 50.

urtemuga beteko du. Urte luzeotan lan eskerga egin da taldeetik pasatu den jendeari esker, zuei esker. Irriz eta malkoz, izerdiz eta nekez, ahalbait giro onenean, beti ere. Zalantzarik gabe, guk dakigun moduan gure kultura babestuz, dantza eginez, alegia.

Orain, ospatzeko ordua heldu zaigu. Iazko eta aurtengo

erromeriak girotzen eta hurbiltze ekitaldiak izan dira. 2007an egin nahi diren ekitaldien antolakuntzarako batzorde bat eratu nahi da, berehala lanean hasteko asmoarekin. Batzorde irekia izango da eta hurbildu nahi duen guztiak besozabalik jasoko du ongietorria.

Horregatik dei hau luzatu

nahi dizuegu, egingo den lehen bilera horretara ager zaitezen. Ideiaz beterik hobeto. Eta zuek, zuen konpromisoz, zuen inguruan ere bileretan parte hartzeko gonbit hau luza dezazuen, guztion artean aparteko urtemuga ospa dezagun.

Bilera Udaberriren lokalera egingo da —igerilekuaren ondoan dugun egoitza nagu-

sian—, maiatzaren 9an, astelehenearekin, arratsaldeko seiak eta erdietan.

Besterik gabe, han elkar ikusiko dugulakoan.

«Denok egin behar dugu zerbait gutxi batzuk dena egin ez dezaten».

JUANJO RUIZ

(UDABERRI DANTZARI TALDEKO JUNTAREN IZENEAN) ▶ TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶



Hegoaldeko jokalaria, zaletuak txalotzen, Berazubín jokaturako partida batean. IMANOL GARCIA

Hiru puntuak etxera, nagusitasun osoz

3-6 irabazi zion Hegoaldeko Diamante Riojari; «sendotasuna eta talde jokoa» izan ziren partida onaren ardatzak

LEIRE MONTES

«Ilusioz eta animaturik» ekin zion Hegoaldeko larunbatean Diamante Rioja taldearen aurkako partidari, Errioxan (Espainia). Aurreko jardunaldian Murtzia talde indartsuari irabazi izanak indar handia eman zion taldeari, eta errioxarren aurka ere hiru puntuak poltsikoratzeko asmoz irten ziren kantxara, gogo biziz. Baita nahia egia bihurtu ere: 3-6 irabazi zuten Tolosakoek, nagusitasun osoz, gainera.

Hasieratik izan zen nabarmena Hegoaldeko Diamante Rioja baino gehiago zela. «Nagusitasuna erakutsi genuen lehen zatian. Haiek ez ziren apenas erasoan atera, eta ez zuten arrisku handirik sortu. Lehendabiziko minutuetatik partida erabakita utzi nahi genuen, eta horretarako borrokatu ginen», azaldu du Maite Argote Hegoaldeko entrenatzaileak. Hala, hamargarren minuturako 0-3 ziren aurretik Tolosakoek, Miriam Aranaren, Nerea Salazarren eta Itziar Aldezabalen go-

lei esker. «Sendotasuna eta talde jokoa» izan zen lehen zatia- ren gako. Errioxarrek beren lehen gola sartu zuten arren, segituan jarri zuten Miriam Aranak 1-4koa. Emaitza horrekin amaitu ziren lehen 20 minutuak.

Bigarren zatian indartsu ekin zioten etxekoek, baina Tolosakoek ondo eutsi zieten: «Buruarekin baino, bihotzarekin jokatu zuten Diamante Riojakoek, eta ez zuten joko arinik egin. Atzean ondo eutsi genien, eta etengabe saiatu ginen arriskua sortzen». Bi gol sartu zituzten Errioxakoek, baina Maider Lopezek eta Edurne Agirretxek ezarri zuten behin betiko 3-6koa.

Emakumezkoen Ohorezko Mailako Ligako 11. postuan dira Hegoaldekoak, 31 puntuarekin. Diamante Rioja aurreratu egin dute: 12. dira espainiarrik, bi puntura.

Datorren asteburuan etxean jokatu du Hegoaldeko. Mardilgo Futsi Navalcarnero taldea hartuko du larunbatean, 19:00etan, Berazubín.

DIAMANTE RIOJA ▶ 3 HEGOALDE ▶ 6

Diamante Rioja. Beatriz Ascázibar, Teresa Marin, Elena Talavera, Esther Decorta, Alicia Martínez —hasierako bostekoa—, Sonia Gil, Mercedes Lopez, Tania González, Pilar Rodríguez, María Talavera, Lorena Gomez.

Hegoalde. Nerea Arana, Maider Lopez, Miriam Arana, Isa Barrio, Nerea Salazar —hasierako bostekoa—, Itziar Aldezabal, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Gema Zelaia, Naiara Mayo.

Golak. 0-1: Nerea Salazarrek (05m.); 0-2: Nerea Salazarrek (06m.); 0-3: Itziar Aldezabalek (09m.); 1-3: Maria Talaverak (18m.); 1-4: Miriam Aranak (19m.); 2-4: Beatriz Ascázibarrek (31m.); 2-5: Maider Lopezek (36m.); 3-5: Mercedes Lopezek (38m.); 3-6: Edurne Agirretxek (39m.).

ARETO FUTBOLA ▶

Horitxoek gol zaparrada Gipuzkoako derbian

Laskorainek 9-4 irabazi zuten Elgoibarko San Pedro taldearen aurkako partida

ERREDAKZIOA

Denboraldiko azken derbi gipuzkoarra jokatu zuten Laskorainek joan den larunbatean Berazubín, Elgoibarko San Pedro taldearen aurka. Horitxoek norgehiagoka zalantzarik beteta hasi zuten, hiru baja garrantzitsu baitzuten taldeak: Saldias, Altuna eta Yustos. Baina minutuak aurrera pasatu ahala, zalantza guztiak argitzen joan ziren, «itxaropenaren eta konfiantzaren mesedetan». Amaierako 9-4koak («erabat gogobete») zituen laskoraindarrak.

Neurketa ez zen, hala ere, «imajina daitekeen bezain samurra» suertatu: «Lehen zatian batik bat, baloian jabetzari esker, jokoa iniziatiba elgoibartarrek hartu zuten. Hala eta guztiz ere, futbolaren handitasuna, gol aukera argienak, gure aldera erori ziren. San Pedrokoek, talde gaztea eta eskarmentu eskasekoa izaki, hutsune ulertezinak burutu zituzten oreka defentsiboa mantentzerakoan; eta futbola ezer bada, oreka kontua da», azaldu dute Laskoraino ordezkariek. Honela, Barriola «puxika margolarik» estraineko eta Telletxea «kadeteak» ondoren, 2 eta 0-koa ipini zuten aldageletera joan aurretik.

Bigarren erdian indartsu hasi ziren berriro ere elgoibartarrek. Jokaldi «eztabaidagarri batean», gainera, 2-1eko sartu zuten. Horitxoek, ordea, jabetuak ziren ordurako hiru puntuak nagusi bakkarra zutela, eta bikain erreagionatu zuten Telletxearen eta Amatriainen gole esker. «Lehenengoa kórner batetik etorri zen, nola ez; eta bigarren-goa, aldiz, Alonso kapitainak

osaturiko eta *play-station*-ekoak zirudien jokaldi batetik. Laskoraineko kapitainaren besokoak ematen duen ahalmena miragarria da».

4-1ekoarekin elgoibartarrek atezain-jokalaria kantxaratu zuten. «Ia beti gertatzen den moduan, erabaki honek gol festa galanta ekarri zuen ondorioztat». 7-1eraino joan ziren ikastolakoak lehendabiziki, «Eki raperoaren, Gil erreagitzaren eta Telletxearen —*hat-trick* ikusgarria larunbateko gazteenarentzat— gole esker». Elgoibartarrek hiru sartu zituzten, 7-4 ipiniz markagailuan. Baina azken minutuan Murgi jubenilak eta Alonso kapitainak azken 9-4koa igoarazi zuten markagailura. «Goraipatu nahi dugu, denbora luzez nazionalen jokatu gabe egon ondoren, Murgi mirakusak borobildutako neurketa», diote taldekoek.

Sailekapeneko laugarren postuari eusteko balio duten hiru puntuak («zorutzen amaitu zuten») Javi delegatuak, Egizabal entrenatzaileak eta Domentxe, Telletxea, Alonso, Barriola, Zubillaga —hasierako bostekoa—, Amatriain, Gil eta Murgi jokalariek.

Beheto taldeen emaitzak

Laskorain K.E. osatzen duten beste taldeei dagokienez, Iker Arregirenak berdindu egin zuen Donostian, eta Jose-txo Otxoarenke bategatik galdu. Albiste bikainena Alonso-tarren neskekin etorri zen, 11-4 irabazi baitzuten Urretxun. Ane jubenilak, «Laskoraino Ronaldinhak», zazpi gol sartu zituen: «Laskoraino harrobian hezitako jokalaririk horekin zabal-zabalik ditu Ohorezko Mailako atekak».

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Ekitaldi eskaintza oparoa

Maiatza Saltsan 05 kultur egitarauaren aurkezpena egin zuen atzo Udalak

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalak Maiatza Saltsan 05 aurkeztu zuen atzo, Aitor Lopez Kirol eta Gazteria zinegotzia eta Ainhoa Larrea kultur teknikaria bertan zirela. Artea ardatz duen kultur egitarau zabala antolatu dute hilabete guztirako, *Artearen omezez* lelopean.

Aurtengo berritasuna Umorezko Bakarrizketen Lehiaketa izango da. Epaimahaiak aukeratutako zortzi bakarrizketa aurkeztuko dira jende aurrean, azaroko bi gauetan, *Zizurkilgo ezer ez da festa* kultur egitarauaren baitan. Bi emanaldi horietan puntuazio altuena lortutako bakarrizketa bana sailkatuko da finalerako.

Bestalde, erakusketa berezi bat inauguratuko da ostiral honetan: Nafarroa Oinezen eskulturena. Besteak beste, Nestor Basterretxearen eskulturak ikusi ahaliko dira. Hilaren amaieran, Tolosaldeko artisten

erakusketa kolektiboa izango da ikusgai.

Liburuei dagokionez, Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketako liburuaren aurkezpena (hilaren 9an) eta Jon Arretxeren *Griot* eleberraren ikus-entzunezkoa (hilaren 24ean) antolatu dira. Sukaldaritzaren inguruan ikastaro bat egingo da, hilaren 11n hasita, eta Urkamendi elkartearen afaria antolatu da, tradiziozko platerak modu berezian aurkeztuz. Txartelak udal bulegoetan eskuratu behar dira hilaren 13a arte. San Isidro egunean ere ekitaldirik izango da.

Ziotza elkartearen bigarren urteurrena dela eta, diapositiba emanaldia eta mendi irteera egingo dira. Kirolarekin jarraituz, Zizurkilgo 7. Biatloia egingo da hilaren 22an. Egitaraua amaitzeko bi ekitaldi: Umorezko Kortoen Emanaldia, hilaren 27an, eta Kukai Dantza Taldearen *Otehitzari biraka* ikuskizuna, hilaren 28an.



Aitor Lopez eta Ainhoa Larrea Maiatza Saltsan 05 kultur egitarauaren aurkezpenan. I. GARCIA

UMOREZKO BAKARRIZKETA LEHIAKETA ▶ OINARRIAK

Zizurkilgo Umorezko Bakarrizketa Lehiaketak, besteak beste, ondorengo oinarriak ditu:

- ▶ Euskaraz idatzitako umorezko bakarrizketa orjinalak eta ezezagunak aurkeztu behar dira.
- ▶ Testuek gutxienez 500 eta gehienez 700 hitz izan behar dituzte.

- ▶ Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira irailaren 15a bitartean, Zizurkilgo udal bulegoetan edo udal bulegoetan. Postaz helbide honetara: Zizurkilgo udal bulegoak; Zizurkilgo Umorezko Bakarrizketen Lehiaketa; Aurrera plaza 3; 20150 Zizurkil.
- ▶ Lan sartiak Udalaren esku geldituko dira, eta egoki iritzi

gero argitaratu egingo ditu, baina ez da horregatik jabetza eskubiderik izango.

▶ Arrazakeria, xenofobia eta tratu txarrei buruzko edukina duten lanak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

▶ Sariak: Irabazleak 500 euro jasoko ditu; bigarren saria, 300 euroko izango da eta Zizurkilgo lehenengo bakarrizketak 150 euro jasoko ditu.

ADUNA ▶

Bular minbiziari buruzko hitzaldia kultur aretoan

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia dute emakumeen elkarteak hitzaldia antolatu du gaur 16:00etan kultur aretoan. Lourdes Arizurri izango da hizlaria eta bular minbiziari buruz hitz egingo du.

ANOETA ▶

Boluntarioak behar direla eta, jubilatuen bilera

Alkartasuna Biltokian bilera-hitzaldia egingo da gaur. Donostian abuztuan egingo den Helduen Munduko Atletismoaren Txapelketarako boluntarioak behar direla eta. Hitzordua 18:30ean izango da Biltokian bertan.

ANOETA ▶

Prestakuntza ikastaroak KZgunean

Herriko KZgunean mikro-entseñak zuzendutako prestakuntza ikastaroak emango dira gaur. 13:00etan hasita, administratzaioarekiko tramiak on-line egiteko, eta 16:00etan hasita, banka elektronikoari buruzkoa.

IRURA ▶ KULTURA

Gaztetxoentzako argazki eta ipuin lehiaketa

Irurako Udalak antolatu du irakurtzaletasuna eta irudimena sustatzeko asmoz

ERREDAKZIOA

Irakurtzaletasuna eta irudimena sustatzeko asmoz, Udalak Irurako II. Argazki eta Ipuin Lehiaketa antolatu ditu. Argazki lehiaketan lehenengo mailatik aurrerako gaztetxoak hartu behar duten parte. Izena ematek azken eguna ostirala

da. Lehiaketa larunbatean egingo da, eguraldiak laguntzen bada, 16:30etik 17:30era. Irabazleak Aralar dendan 25 euriko balea jasoko du, bigarrenak, 15 euroko balea. Eskuratutako argazkiekin erakusteta egingo da.

Ipuin lehiaketan lehenengo mailatik aurrerako gaztetxoak hartu dezakete parte. Lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 11a izango da. Hiru maila izango dira eta maila bakoitzean bi sari izango dira: irabazleak 25 euroko erosketa txartela izango du Biltex dardako eta bigarrenak 15 euroko txartela.

PLAZA ETXEBERRI
JATEXEA
Sukaldari eta kamarerak behar ditugu lehenbailehen
635 752 929 (Amaia)
ZIZURKIL

Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez, 800 enpresa, kateak, denda, jatetxe... eta era guztietako erakunde bakoitzak euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

www.bai.euskarari.org

Bai Euskarari Ziurtagiria!

902 430026

Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

hitza

LARRAITZ ▶ ARALARCO LARRE IREKIERA

Jai giroan ireki dira aurten Aralarreko larreak, irailera arte

Ehunka pertsona bildu ziren igandean Larraitzeko belazeetan, Aralarreko larre irekieraren festaz gozatzeko



Gaztekoen pottoken gainean ibiltzeko parada izan zuten goizeko jaialdian. JUAN KARLOS RUIZ/ARGAZKI PRESS

NOELIA LATABURU

Iragan igandean ireki zituzten ofizialki Aralarreko larreak eta guztira 17.500 abelburu —ardiak, behiak eta behorrak— bazkatuko dira irailera bitarte 3.500 hektarea hauetan zehar. Ez zuten Langileen Nazioarteko Eguna ospatzerik izan, bada, inguruko abeltzain eta artzainek. Haatik, pozik bete zuten bere lana eta festa giroan eraman zituzten euren abereak larreetara.

Larraitz artzaintzaren kulturen gune bilakatu zen, artzainen eta, eguraldi onak bultzatuta, bertaratutako ehunka pertsonen aurrean, jai giro alai sortuz. Abaltzisketako Zubeldierdi baserriko Emilio Gorostidiren behiak izan ziren irekieraren protagonistak, lehenak izan baitziren Txindokipeko larreak zapaltzen, 12:00etan. Abeltzain eta artzainen artean, berriz, aurtengo negu gogorrari buruzko ai-puak ziren nagusi; halaber, animalien janariaren banaketa



Ganadua markatu zuten larreetara igotzeko. JUAN KARLOS RUIZ/ ARGAZKI PRESS

ere zaila izan delarekin bat zetozen denak ere, aurreko udaran izandako lehortea zela eta.

Goizean goiz eman zitzaion hasiera larre irekieraren festari eta arratsaldera bitarte hamaika ekitaldik bete zuten eguna: pottoken erakusketak, harrijasotzaileak, musika emanaldiak, txiste kontalariak, artzain-txakurren erakusketak,...

Bien bitartean, salmentapostu ugari ezarri zituzten Larraitzen, giro jendetsua zelareta euren produktuak eskaintzeko; gazta, ogia, eztiak, taloak, sagardoa eta albarkak edo saskiak bezalako eskulanak izan ziren aukeran. Alegiako Aralar institutuko ikasleek jardunaldia kurso amaierako bidaiarako dirua biltzeko aprobetxatu zuten eta gozokiak eta patata tortilak saldu zituzten.

Bestalde, aldarrikapenerako tarterik ere izan zen Larraitzen. EHNE sindikatuko kideek festarekin bat egin zuten, ez aurretik euren salaketak burutu gabe. EHNEko lehendakaria den Eneko Karrerak egin zituen bozeramaile lanak eta «artzain eta abeltzainek pairatu behar dituzten egoerak» salatu zituen. Gipuzkoako mendietan jazotakoaren aurrean «maiatzaren 1a jai eguna den arren» dena ospakizuna ez dela gainera zuten Karrerak, izan ere, «Aralarreko larreak beti izan dira gatazkarako arrazoi». Duela egun gutxi Amezketako artzain bati erretako txabolari buruz ere mintzatu zen Karrera eta Aldundiari «gertatutakoa ikertu dezala» eskatu zion, «asmo txarrez» eginikoa izan delakoan baita EHNE sindikatua.

Larre irekieraren jatorria

Maiatzaren lehena artzainak larreetara igotzen hasten direneko garaia izan arren, ez da beti horrela izan. Ospakizun honen jatorriarekin urte batzuetan zehar atzera eginez egiten dugu topo, Enirio-Aralar Mankomunitateak goiko larreak neguan ganadurik gabe mantentzeko erabakia hartu zuenean. Orain dela zortzi urte hasi zen larreen irekiera espaztzen, artzainen kultura ezagutzera emateko asmoz; horrela, Larraitzeko belazeetan eginiko jaialdira hurbildutakoak ganadua nola markatzen den, artzain-txakurrek nola egiten duten lan eta artzaintzarekin lotura estua mantentzen duten bestelako kontuak ezagutzeko aukera izaten du.

Hau dela eta, Enirio-Aralar Mankomunitateak zein artzainek egun honen garrantzia azpimarratu nahi dute, izan ere «jendeak ez du artzainen kultura eta bizimoduaren berri».

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi. Medikua: 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 59 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona. Anbul.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32
▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
▶ Karrape irratia: 948 61 09 14

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Olarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 67 01 28
Larraia, M. I. Elbarren 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialde@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Monobolumena, Peugeot 806. Oso ondo zaindua. Deitu 645 703 634 zenbakira.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Husky eme bat galdu da. Txuri-beltza, begi urdinekin, 6 urtekoa. Deitu 617 639 049ra.

OREXA ▶ SANTA KRUZ JAIAK

Amaitu dira herriko jaiak

Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko apustua eta bazkaria izan zen atzo

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo amaitu ziren Orexako jaiak Santakutz egunarekin, jaietako egun garrantzitsuenarekin. Eta amaiera, hasi ziren moduan, festa giroan eman zieten.

Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko dema izan zen atzokoan eguerdi partean. Behoko auzoari deitzen zaio Elbarrene eta goikoari, berriz, Intxaurpe. Bi auzo hauetan bizi diren herritarrek hartu zuten parte, txiki nahiz heldu, apustuan. Izan ere, pasa den urtean Intxaurpekin irabazi zuenez Elbarrene auzokoek ordaina eman nahi zieten, bana ez zen posible

izan 2-1 irabazi baitzuten Intxaurpe auzokoek.

Pilota partiduekin hasi zen dema, eta ondoren herri kirolak izan ziren. Trontzan, aizkora, korrika, uztaiarekin, iltzak sartzen eta harriak jasotzen lehiatu ziren. Eta azken proba sokatira izan zen. Jende ugari bildu zen herriko frontoian, taldekideak animatu eta ikuskitzuz gozatu asmoz.

Behin apustua amaituta, elkartean bildu ziren herritarrak pintxo lehiaketa eta dastaketa egitera, eta bide batez prestatu zenarekin bazkaria egitera. Eguraldi ederrean Santakutz egunak eman dio amaiera aurten herriko jaiak.



Trontza, aizkora, korrika, uztaiarekin, harriak jasotzen...lehiatu ziren nor baino nor. I.TERRADILLOS



Pilota partidekin hasi zen apustua. I.TERRADILLOS



Bi herritar gazte aritu ziren aizkora. I.TERRADILLOS

LIZARTZA ▶ KULTURA

Bizikleta irteera eta jaialdia egingo dute gaur Eskolako Astearen baitan

Atzo, irakurketa saioa eta puntu txapelketa izan ziren

I.TERRADILLOS

Atzo eman zitzaion Lizartzako Eskolaren XVI. Asteari hasiera, eta datorren ostiralera arte hainbat ekitaldi antolatu dituzte ikasle nahiz gurasoentzat.

Irakurketa saioa egin zuten atzo bazkalostean. Gela bakoitzean gurasoek lagundurik ipuin bat irakurri zuten. Eta irakurketa egin ostean, adinaren arabera, marrazkiak edo iraku-

ritakoaren laburpena egin behar zuten gaztetxoek. Arratsaldean, berriz, puntu txapelketa antolatu zuten. Txikiek gurasoen hartu zuten parte joko honetan.

Gaur, berriz, bizikleta irteera egingo dute ikasle eta irakasleek. Ikasle txikienak, ordea, eskolan geratuko dira eta oka bizikleta izeneko jolasean ariko dira. Arratsaldean, jaialdia egingo dute euskaltegian. De-

netarik izango da, antzerkia, jolasak, jatekoa... Eta antzerkiek eta jolasek bihar ere jarraituko dute, Altoz eta Abaltzisketako lagunak etorriko baitira eguna lizartzarrekin igarotzera. 19:30ean afari-merienda egingo dute elkarrekin frontoian.

Amaitzeko, Txuri-Urdinera eta Txiki Parkera egun pasa egingo dute Lizartzako ikasleek ostiralean.



Irakurketa saioa egin zuten atzo ikasleek gurasoekin. I.TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶



Pablo Gorosabel, 40
L. plaza - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 660 368 994

Abaltzisketa. Sei etxe atxiki, sukalde, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan, hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.

Anoeta. Estreinatzeko dagoen duplex etxebizitza salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukalde eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia

alokairuan eskaintzen da. Erabat hornitua.

Bidanía. Bi familierentzat egokituriko sei etxe salgai. Garajea, sukalde, egongela, bainugela eta terrazarekin lehenengo solairuan. Hiru logela, bainugela eta terrazarekin bigarren solairuan.

Ibarra. Nekazal ustiapenerako egokia den 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Bizitzera sartzeko. Garajea aukeran.

Lasarte. 3. solairuan dagoen 65

m² erabilgarri dituen etxebizitza salgai Oztaran kalean. Guztiz kanpoaldera.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean, 75 m² dituen etxebizitza salgai. Eraikuntza berria. Igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza salgai. Erabat berria. Atzealdean baratz propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-

ko etxebizitza salgai, erabat kanpoaldera. Berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera, eta oso eguzkitsua. Igogailuarekin. Berritzeko premia.

Tolosa. Lurren 98 m²-ko etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Oso eguzkitsua. Igogailua eta trastelekuarekin. Marradun garajea.

Urretxu. 780 m² dituen pabilioia salgai. 300 m² tarteko solairuan. Instalakuntza osoarekin. Erakusketaz zabal.

LEITZA ▶ MENDI ASTEA

Hitzaldi eta proiektioz betetako astea dator

Ikusiz nahiz ibiliz 'bidaiatzeko' aukera prestatu dute Mendibil-ekoek mendi astean; argazki erakusketa ikusgai

JAIONE ASTIBIA

Gaur hasi eta hurrengo egunetan, egunero-egunero hainbat ikus-entzunezko eskaintza izanen dira Leitzako zinema aretoan, hainbat proiektioz eta hitzaldia ere izanen delarik: Mendibil mendi taldeak mendi astea antolatu baitu.

Horrela, asteari ekiteko, gaur bertan, beraz, Manu Zubillagak, kirol medikua da bera, hitzaldia eskainiko du *Mendi istripuen prebentzioa* gai hartuta.

Biharko eta etzirik, berriz, proiektioak antolatu dituzte: bihar, Joserra Basaguren mendizale eskarmentudunak, *Alpeetako hiru handiak* izenburupean, Monterrosa, Cervino eta Mont Blanc aldeko irudiak erakutsiko ditu; biharamonean, berriz, Iruretak iaz Nepale-

ko Himalaya aldean egin zuen ibilaldiari buruzkoak erakutsiko ditu. Bien hala biek ere, ohiko mendizaleentzat eskuragarri diren aukerak erakutsiko omen dituzte.

Egun hauetan guztietan, bestalde, eta proiektioek dirauten bitartean, argazki lehia-

ketan parte hartu zuten argazkiak ikusgai egonen dira zinemaren bertan.

Astea bukatzeko, larunbatean, Leitzatik Aldatzera joanen dira mendiz mendi, 8:00etan plazatik aterata. Ostirala baino lehen izena ematea komeni dela eman dute jakitera.

MENDI ASTEA ▶

Ekitaldiak, zinemaren izanen dira, 20:00etan; han bertan argazki erakusketa egonen da.

handiak (Joserra Basaguren mendizalea).

ETZI

Proiektioa. *Phuta Hiunchuli-Dhaulagiri VII 2004* (Benantxio Irureta).

GAUR

Hitzaldia. *Mendi istripuen prebentzioa*. (Manu Zubillaga).

BIHAR

Proiektioa. *Alpeetako hiru*

ETZIDAMU

Mendi ibilialdia. Leiza-Aldatz.



Ikurrinak atarien jabe

LEITZA/IKURRINA ▶ Larunbat arratsaldean ehundaka lagun elkartu ziren *Ikurrina gurea*. Herriari galdetu leloarekin, aurreko eta egungo ezker abertzaleko karguek zeramaten pankarta buru zela, egin zuten manifestaldian. Larrain herri plataformak deitutako manifestaldiak, herriko kaleak zeharkatu zituen, sei dantzarik zeramaten ikurrin handi batek bidea irekiz. Ibilbidean, besteak beste «ikurrina bai, espainola ez», «ikurrina udaletxean»... moduko oihuak entzun ziren larunbatean. Manifestaldia plazan bukatu zuten, komunikatu bat irakuriz. Horren bidez, «orain berriz ere, gurea ikurrina dela aldarrikatzeko premian gaude», adierazi zuten, eta ikurrinaren gaineko erabakian «herriari hitza ematea aldarrikatu» zuten. Ordurako udaletzeko balkoian eta erlojuaren puntan, ikurrin handi bana ageri ziren. Aipatu beharrekoa da, bata astelehenean eta bestea asteartean, biak faltatu zirela zeuden lekutik. J. ASTIBIA

LEITZA ▶ BERTSOLARIAK

Bertsolari festa antolatu dute ostiral gau honetarako, Landa jatetxean

Afalondoan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira bertsoan; jaialdiko erreserbak egiteko azken eguna gaur da, bertara deituta

J. ASTIBIA

Ostiral honetarako, bertsolari festa antolatu dute Landa jatetxean: 21:30ean dute afaltzera biltzeko jarritako ordua. Lehendabizi afari ederra dastatu eta ondoren, Sebastian Lizaso-

ren eta Andoni Egañaren bertsoez gozatu. Horixe da egin duten eskaintza.

Afaria ezin hobea prestatzekoak dira: Leongo (Espainia) behi-zezina; kalamar eta otarrainsken entsalada epela; pikilo eta ondoez egindako hos-

torea; entrekota pikilo eta patatekin; gozoki degustazioa; gutzia edariz bustia, eta kafe eta kopa bukatzeko.

Gaur da festa horretara joateko erreserbak egiteko azken eguna, zuzenean 948 510 986 telefono zenbakira deituta.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Gaur harrobien herri kontsultaz bilera

Gaur arratsalderako, 20:00etarako zehazki, egin du bilera deialdia, Harrobien Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak, hain zuten ere, herri kontsulta horren nondik norakoak azaltzeko helburuz: talde horrek kontsultako informazio kanpainan, gai horren inguruko informazioa hedatzeko prestatu duen egitarauaren berri eman nahi omen du eta herritarrei, bilera horretan parte hartzeko deia egin diete.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

inkestako emaitzak:

denboraldian zenbat aldiz joaten zara sagardotegietara?

- ▶ BEHIN: - (%25)
- ▶ BITIK BOSTERA: - (%50)
- ▶ BOSTETIK HAMARRRERA: - (%10)
- ▶ 10 ALDIZ BAINO GEHIAGO: - (%8)
- ▶ INOIZ EZ: - (%7)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aduna. Bular minbiziari buruzko hitzaldia kultur aretoan 16:00etan.

Anoeta. KZguneako mintegiak: administrazioarekiko tramiteak 13:00etatik 15:00etara eta banka elektronikoa 16:00etatik 18:00etara.

Anoeta. Beterano mailako Munduko Atletismo Txapelketarako boluntarioak lortzeko bilera. Alkartasuna biltokia 18:30ean.

Belauntza. KZgunean tutorearen bisita izango da 9:00etatik 13:00etara. 9:00etatik 11:00etara, berriz, Zure etxebizitza aurkitu mintegia izango da.

Ibarra. Euskal herri kirolen argazki erakusketa Kultur Etxean.

Tolosa. Tsunamiak kaltetutako emanaldia Kultur Etxean 19:30ean. Aitzo udal euskaltegiak antolatuta.

HERRI URRATS

Aiztondo. Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako autobusa iganderako. 943 69 39 60.

Belauntza. Udalak antolatuta. Izen-ematea, Kultur Etxean. Gaur da azken eguna.

Leaburu-Txarama. Izen-ematea udaletxean. Gaur da azken eguna.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. Izen-ematea, bertan (Nafarroa etorbidea. 943 65 50 04).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Calcutako bizitari buruzko argazkiak Aranburu Jauregian. Calcuta Ondoa eta San Bartolome misio taldeak antolatuta.

Tolosa. Iñaki Linazasororen argazkiak bere heriotzaren lehen urtemugan Udalaren omenaldi gisa, Kultur Etxean.

Tolosa. Miren Gonzalez eta Matxin Labaien pintore tolosarren koadroak Aranburu Jauregian.

ZINE-KLUBA

Alegia. Emir Kusturika Jugoslaviako zuzendariaren *La vida es un milagro* Gaztebexan 21:30ean.

Klasikotik garaikidera

TOLOSA ▶ Alos Quartet hari koartetoak izen bereko diskoa kaleratu du; Xabier Zeberio tolosarra da taldekidea eta pieza batzuen konposatzailea



Ekzerretik hasita, Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Inazio Alkain eta Pello Ramirez. BAXI UBEDA/IÑIGO ROYO

ERREDAKZIOA

Tlasikotik musika garaikidera doan esparru zabala hartuz, Alos Quartet hari laukoteak taldearen izen bereko diskoa kaleratu berri du No-Cd Records disketxearekin. Biolina eta nyckelharpa jotzen duen Xabier Zeberio tolosarra da taldekideetako bat, Francisco Herrero biolina, Inazio Alkain biola eta Pello Ramirez biolontxeloarekin batera. Musika munduan bide desberdinak egin dituzte lau taldeki-

deek, baina lehen hiruak Et Incarnatus ganbara orkestran topatu ziren eta 1999an sortu zuten Alos Quartet Ramirezkin batera. Harrezkero, hainbat musika talderekin aritu dira diskoak grabatzen eta zuzeneko emanaldietan: Niko Etxart, Dulce Pontes, Kepa Junkera, Olatz Zugasti, Bide Ertzean, Los Piratas, Tejedor, Angel Unzu, Ken 7, Joserra Senperena eta Oskorri.

Disko bat grabatzearen eskaintza duela lau urte iritsi zitzaizen eta «zer bait berezia»

egin nahian aritu dira, besteek jotzen dituzten obrak jotzeari uko egin eta topikoak baztertzeko dituen diskoak osatu du. Bere musika definitzeko «zaila» dela diote, «urte hauetan egindako folkak, popak eta jazzak eragiten duelako».

Diseinuan ere ahalegin berezia egin dute, Baxi Ubeda eta Iñigo Royo tolosarren laguntzari esker: erakargarria, ikusgarria eta modernoa da. Kolaborazioen atalean, Iñigo Egia perkusioan eta Gonzalo Tejada kontrabaxuan aipatu behar

dira. Grabaketa Jean Phocas teknikariarekin egin zuten Elkar etxean.

Diskoak pieza gehienak Xabier Zeberio sortu ditu, baina Eskandinaviako Steve Dobrogosz eta Terje Bjorklund konpositoreen hiru obra ere grabatu dituzte. Zeberio berak jotzen duen nyckelharpa bera ere lurralde hartako soinu tresna da. Emaitzarekin «oso gustura» agertu da tolosarra eta laster Tolosan egingo den ekitaldi batean parte hartuko dutela aurreratu dio HITZARI.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!